Ikastaroaren fitxa

Erabiltzaile gaitutik aditurako bidean: C2 atarikoa (2025/60/15/73)

1 INFORMAZIO OROKORRA

- **Hizkuntza Prestakuntza arloa**
- **Modalitatea** Jardun bikoa (lineako edukiak eta derrigorrezko 4 zoom-saio).
- **Hizkuntza** Euskara
- **Iraupena** 40 ordu
- **Ikasle kopurua** 12
- **Hartzaileak** 3. HE (C1C1 maila) egiaztatuta duten EAEko herri-administrazioetako langileak.
- **Irakaslea** Instituto Labayru Ikastegia

Egutegia

1 **Administrazio Orokorra**

- **Izena emateko epea**: 2026ko urtarrilaren 2tik irailaren 16ra
- **Oniritzi epea**: 2026ko irailaren 17tik 23ra

Beste administrazio batzuk

- **Izena emateko epea**: 2026ko urtarrilaren 2tik irailaren 23ra

2 **Ikastaroaren egunak**
2026ko urriaren 5etik azaroaren 30era

3 **Zoom-saioak**
2026ko urriaren 8 eta 22a (12:00-14:00)
2026ko azaroaren 5 eta 19a (12:00-14:00)
- Zoom-saioaren data aldatu ahal da sortzen den talde-kopuruaren arabera.

Zoom-saio bakoitzean sartzeko lotura eta pasahitza Moodle plataforman bertan eskuragarri.

4 **Baja emateko azken eguna**
2026ko urriaren 2a

Ikastarorako sarbidea

https://autoprestakuntza.euskadi.eus

- **Dagokion administrazioak ordaindu beharreko matrikularen prezioa** 248,85 €

AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena (uztailaren 8ko EHAA, 132. zk.).

2 HELBURUAK

Helburu orokorrak

Idatzizko testua planifikatzen eta argi (ordenatuta eta josita) eta jator adierazten trebatzea.

Helburu zehatzak

Idazmenean hobetzeko, honakoa landuko dute ikasleek: testuen egitura eta antolamendua, kohesioa (hitzen ordena eta testu-antolatzaileak), erdarakadak eta estiloa.

Konpetentziak

Ikaslea, prestakuntza-ekintza amaitzean, honetan trebatuko da:

- Testuaren gidoia prestatzen.
- Esaldia adierazi nahi denaren arabera ordenatzen.
- Testu-antolatzaile egokiena aukeratzen.
- Erdarakadak eta kalkoak identifikatu eta ordezko egokia bilatzen.

Irakasle batek gidatuko du ikasle-taldea eta bakoitzaren urratsak jarraituko ditu.

3 PROGRAMA

Testuaren ikuspegi orokorra: planifikazioa

- Oinarrizko jarraibideak eta aholkuak
- Eredua: eskema eta handik eraikitako testua

Hitzen ordena

- Oinarrizko elementuak:
  - Mintzagaia
  - Iruzkina
  - Galdegaia
- Atzerakarga:
  - Hitz iragarleak
  - Aditza aurreratzea
  - Testu-antolatzaileak
  - Sailkapena
  - Erabilera estrategikoa
  - Testu-antolatzaile iruzkingileak
  - *Ere* lokailua
- Erdarakadak eta kalkoak
  - Erdal gerundioa euskaraz
  - Okerreko menderatua
  - Alferreko erlatiboa
  - Ahalera eta kalkoak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

METODOLOGIA

Ikastaroak teoria eta praktika uztartzen ditu. Lau ataletan dago banatuta, helburua lortzeko ikasketa prozesuaren arabera egituratuta eta antolatuta. Atal bakoitzak azalpenak edo jarraibideak ditu, eta horiek lantzeko ariketak eta jarduerak (azken hauek notarako dira). Zortzi jardueratik bost (ikasketa prozesuari begira egokienak) taldean ere aztertu eta komentatuko dira, zoom saioetan.

4 EBALUAZIOA

Ebaluazioa

Ebaluazioaren helburua: ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete direla bermatzea.

Ikastaroak 8 jarduera ditu, eta jarduerotan oinarrituko da ebaluazioa. Ikasleak ikastaroko jarduerak egin eta horietako batzuk irakasleari bidaliko dizkio, hark zuzendu eta feedbacka eman diezaion. Gainera, ariketa batzuk taldean aztertu eta komentatuko dira, zoom saioetan. Era berean, irakasleak zehaztuko du edukiak noizko ikasi eta jarduerak noizko egin.

Aprobetxamendua

Aprobetxamenduko ziurtagiria lortzeko bete beharreko baldintzak:

- Irakasleari ikastaroko jarduera guztiak bidaltzea.
- Ikastaroko 8 jardueretatik 7, gutxienez, gainditzea.

Ikastaroaren balorazioa

Ikasleek asebetetze inkesta beteko dute.

Irakasleek balorazio inkesta osatuko dute.

5 OHARRAK

Baldintzak

Beharrezkoa da posta elektronikoko kontu korporatibo bat izatea ikastaroa egingo duen pertsona identifikatzeko.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 5.1 d) artikuluan xedatutakoaren arabera, datu pertsonalak zehatzak izango dira, eta, behar izanez gero, eguneratuak. Hori guztia zehaztasun printzipioa betetzeko.

Harremanetarako

ikasivap@ivap.eus

Ziurtagiri digitala

Ikastaroaren aprobetxamendu-ziurtagiria eskuragarri egongo da posta elektronikoan jakinarazpena jasotakoan, *IVAPekiko izapideak* / *Ziurtatzeak* atalean sartuta.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA